1. ENTITATEAREN JARDUERA OROKORRAK

1.1. Sarrera.

OSAKIDETZA, Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoa da, eta ekainaren 26an onartutako Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legeak sortu zuen.

Zerbitzu sanitarioen horniketa du helburu, Osakidetzaren menpe dauden zerbitzu sanitarioetako erakunde publikoen bidez.

Osakidetzaren egungo egitura:

- Zuzendaritza Nagusia.
- Emergentziak.
- Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa.
- Arabako ESI.
- Arabako Errioxako ESI.
- Donostialdeko ESI.
- Goierri-Urola Garaiko ESI.
- Bidasoako ESI.
- Debabarreneko ESI.
- Debagoieneko ESI.
- Tolosaldeko ESI.
- Bilbo-Basurtuko ESI.
- Barrualde-Galdakaoko ESI.
- Uribeko ESI.
- Barakaldo-Sestaoko ESI.
- Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESI.
- Santa Marina Ospitalea.
- Gorlizko Ospitalea.
- Arabako Osasun Mentaleko Sarea.
- Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea.
- Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea.
- Osatek (Sozietate Publikoa).
- Onkologikoa (Atxikitako Zentroa).

ESI – Erakunde Sanitario Integratua

Osakidetzak pertsonak ardatz dituen arreta baten alde egiten du apustu, desberdintasunik gabekoa eta hurbilagokoa den arreta jarraitu baten alde, eta erakunde sanitario integratuen ereduan oinarritzen da.

1. ACTIVIDADES GENERALES DE LA ENTIDAD

1.1. Introducción.

OSAKIDETZA, Ente Público de Derecho Privado, fue creado por la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi.

Su objetivo o finalidad es la provisión de servicios sanitarios a través de las organizaciones públicas de servicios sanitarios dependientes del mismo.

Osakidetza tiene en la actualidad la siguiente estructura:

- Dirección General.
- Emergencias.
- Centro Vasco de Transfusiones y Tejidos Humanos.
- OSI Araba.
- OSI Arabako Errioxa / Rioja Alavesa.
- OSI Donostialdea.
- OSI Goierri-Alto Urola.
- OSI Bidasoa.
- OSI Debabarrena.
- OSI Alto Deba.
- OSI Tolosaldea.
- OSI Bilbao-Basurto.
- OSI Barrualde-Galdakao.
- OSI Uribe.
- OSI Barakaldo-Sestao.
- OSI Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces.
- Hospital Santa Marina.
- Hospital de Gorliz.
- Red de Salud Mental de Araba.
- Red de Salud Mental de Bizkaia.
- Red de Salud Mental de Gipuzkoa.
- Osatek (Sociedad Pública).
- Onkologikoa (Centro Vinculado).

OSI – Organización Sanitaria Integrada

La apuesta de Osakidetza por una atención centrada en las personas, sin desigualdades y más cercana continúa apoyándose en el modelo de organizaciones sanitarias integradas.

Eredu horrek eskaintzen du koherentziarik, koordinaziorik eta sinergiarik handiena, arretaren testuinguruan pertsonei osasun-emaitzarik onenak emateko. Osasun-emaitza horiek 2023ko ekitaldirako helburuetan jaso dira, eta honako hauek barne hartzen dituzte, besteak beste: osasuna sustatzea, gaixotasunak prebenitzea eta euskal herritarren artean heriotza eta desgaitasuna eragiten dituzten gaixotasun nagusiei modu integralean heltzea.

Este modelo ofrece la mayor coherencia, coordinación y las sinergias necesarias para proporcionar los mejores resultados de salud a las personas en los escenarios de la atención que se concretan en los objetivos para el ejercicio 2023 y que abarcan la promoción de la salud, la prevención de enfermedades y el abordaje integral de las principales enfermedades causantes de muerte y discapacidad en la ciudadanía vasca.

2021-2024 esparru estrategikoak osasuna politika guztien erdigunean jartzen ditu, eta pertsonak, berriz, desberdintasunik gabeko arreta hurbil baten erdigunean.

El marco estratégico 2021-2024 sitúa la salud en el centro de todas las políticas y a las personas en el foco de una atención cercana y sin desigualdades.

Erakunde sanitario integratuak duela urte batzuk hasi ziren egokitzen zahartzearen, kronikotasunaren edo mendekotasunaren erronketara. Eta orain, haurren eta nerabeen osasunari, emakumeei, adinekoei eta aniztasunaren arretari beren-beregi heltzeko bide berriak gehitu zaizkie.

Las organizaciones sanitarias integradas iniciaron hace años una adaptación a los retos emergentes del envejecimiento, la cronicidad o la dependencia. A ellos se añaden ahora nuevos abordajes específicos de la salud de niños, niñas y adolescentes, las mujeres, las personas mayores y la atención a la diversidad.

Gertutasuna eta berdintasuna ezaugarri dituen arreta bat eskaintzeko, gure ESI guztietan Lehen Mailako Arretako nahiz ospitaleko asistentzia sanitarioak bat etorri behar du pertsonen arreta integratuan eta laguntzaren jarraipenean esku hartzen duten elementu instrumentalekin, besteak beste hauekin: osasun publikoa, arreta soziosanitarioa eta berrikuntza, baita elementu horien gobernantza-egiturak eta -funtzioak ere. Osakidetzak erakunde sanitario integratuen ereduaren alde egiten du apustu osasun-emaitzak hobetzeko helburuarekin, eta hori asistentzia-prozesurik onenen bidez lortu nahi du, ESIen koherentzia, koordinazioa eta sinergiak lehenetsiz. Azken batean, osasun-sistemaren erronka ezagunei eta sortzen ari direnei erantzun onena emateko tresnarik onenak dira.

Para una atención más cercana a las personas y sin inequidades, la asistencia sanitaria tanto primaria como hospitalaria de todas nuestras OSI debe armonizarse con los elementos instrumentales que intervienen en la atención integrada y continuación asistencial de las personas y que incluyen la salud pública, la atención sociosanitaria, la innovación y las estructuras y funciones de gobernanza de estos elementos. La apuesta de Osakidetza por el modelo de organizaciones sanitarias integradas responde al objetivo de mejorar los resultados de salud mediante los mejores procesos asistenciales, primando la coherencia, coordinación y las sinergias que la organización tiene en su conjunto. En definitiva, constituyen el mejor instrumento para dar la mejor respuesta a los retos conocidos y emergentes del sistema sanitario.

Azkenaldi honetan, gure erakundeak etengabeko kultura-aldaketa baten erdian daude, herritarren egungo premiei erantzuten dion kalitatezko asistentzia eskaintzeko. 2020an Covid-19aren pandemia hasi zenetik, asistentzia-premia berriak lehenetsi behar izan dira, eta arreta egokitu egin behar izan da segurtasun-mailarik altuenak eskaintzeko, baina gure osasun-sistema garatu zen urteetan ezarritako asistentzia-kalitateari eustea bermatuz.

Nuestras organizaciones se encuentran en estos últimos tiempos en pleno cambio cultural continuo, dirigido al fin de prestar una asistencia de calidad y acorde a las necesidades actuales de la población. La irrupción de la pandemia de Covid-19 en el año 2020 supuso la necesidad de priorizar nuevas necesidades asistenciales y adaptar la atención a las personas con los máximos niveles de seguridad, a la vez que se garantizaba la continuidad de una calidad asistencial establecida en los años de desarrollo de nuestro sistema sanitario.

Egoera horrek osasun-baliabideetan gastu handia ekarri du eta herritarrek galera batzuk izan dituzte irisgarritasunean eta osasunean, eta, aldi berean, nahitaezkoa izan da osasun-arretaren fokua eta lehentasunak aldatzea, egokitzapen horiek egiteko oso asti gutxirekin. Baliabideen esleipenak aldatu behar izan dira, eta gainera, egoera honek teknologia berri batzuk txertatzea ekarri du, batez ere komunikazioari eta telemedikuntzari dagokienez.

Esta situación ha supuesto un gran coste en recursos sanitarios y algunas mermas de accesibilidad y salud para la población, a la vez que se ha obligado a cambiar el foco y las prioridades de la atención sanitaria con mínimos periodos de adaptación. Además de la reasignación de recursos, esta situación ha supuesto un empuje para la incorporación de algunas nuevas tecnologías, fundamentalmente de comunicación y telemedicina.

Pandemiari aurre egiteak dakartzan erronkak alde batera utzi gabe, gure osasun-sistemaren garapen koherenteak kontuan hartu behar ditu epe luzera begira ezarri diren lehentasun estrategikoak, zeinak biztanleriaren beharren arabera ezarri baitziren, eta aldi berean, egungo ezohiko egoerari aurrea hartzeko kontingentzia-planak prestatu behar dira. Baldintza

Sin poder ignorar los retos que supone hacer frente a la pandemia, el desarrollo coherente de nuestro sistema sanitario debe contemplar mantener las prioridades estratégicas fijadas según las necesidades de la población en el largo plazo, de forma compatible con la elaboración de planes de contingencia en anticipación a situaciones inhabituales como la actual. Con estos

horiekin eta Osasun Sailak ezarritako estrategiei jarraituz, Osakidetzak arreta integratua etengabe hobetzeko lan egiten du, eta hori bi lan-ildotan garatzen da:

Alde batetik, erakunde sanitario integratuen funtzionamendua sendotuz, gobernu-egitura bakar baten bidez, lehen mailako arretaren eta ospitale-arretaren eginkizunak modu koherentean integratuz, pertsonen arretan ahalik eta balio handiena eskaintzeko.

Eta bestetik, erakundeek asistentzia-prozesuen integrazio kliniko-funtzionalean lan egiten dute, eta bertan, bi arreta-mailetako zereginak barne hartzen dituzten ibilbide asistentzialak sortzea funtsezko tresnetako bat da. Ibilbide horiei pazientearen edo erabiltzailearen ikuspegitik helduz, eraginkortasun klinikoaren ikuspegitik heltzea lortzen da, baina baita ibilbideen irisgarritasunaren ikuspegitik ere, osasunaren gaineko eraginkortasuna eta erabiltzaileen gogobetetzea hobetzeko.

Prozesu horietako askoren irismena dela eta, batez ere kronikotasunari edo mendekotasunari dagokienez, sektore soziosanitarioarekiko koordinazioan sakontzen jarraitzeak duen garrantzia azpimarratu behar da. Azken urteotan hainbat aurrerapen lortu dira informazio-sistema partekatuak eta balorazio-tresna adostuak erabiltzeari dagokienez, eta, horregatik, lehentasunezkoa da koordinazio hori azpimarratzea, biztanleria-ikuspegi integratzaileago batekin.

Azken batean, antolamendu sanitario integratuaren eredua sendotzea eta indartzea da oraindik ere tresnarik onenetako bat biztanleriarengana bideratzeko eta ikuspegi arduratsu eta pertsonalizatua emateko gure erakunde sanitario integratuek herritarren osasunaren harira esleituta dituzten alderdiei: osasuna sustatzetik gaixotasunen prebentziora, iktusaren edo infartuaren kodeetan egoera akutuei erantzuna ematetik Euskadiko Onkologia Planean minbiziaren inguruan eskaintzen den ikuspegi globalera, edo euskarrietatik menpekotasunera eta bizitzaren amaiera arteko laguntzara.

1.2. Gizarte-funtsa.

Gizarte-funtsa honela banatzen da:

condicionantes y siguiendo las estrategias establecidas por el Departamento de Salud, Osakidetza trabaja en una mejora continua de la atención integrada y que se desarrolla en dos líneas de trabajo:

Por un lado, la consolidación del funcionamiento de las organizaciones sanitarias integradas, mediante una única estructura de gobierno que de forma coherente integra los cometidos tanto de la atención primaria como de la atención hospitalaria con el fin de aportar el máximo valor en la atención a las personas.

Por otro lado, las organizaciones trabajan en la integración clínico-funcional de los diferentes procesos asistenciales donde uno de los instrumentos fundamentales lo constituye la creación de las rutas asistenciales, que incluyen los cometidos de los dos niveles de atención. El enfoque de estas rutas desde el punto de vista del paciente o usuario permite un enfoque de efectividad clínica, pero también de accesibilidad de las rutas para conseguir mejorar los resultados de efectividad en salud y de satisfacción de los usuarios.

Debido al alcance de muchos de estos procesos, sobre todo los vinculados a la cronicidad o a la dependencia, es necesario destacar la importancia que tiene continuar profundizando en la coordinación con el sector socio-sanitario. La utilización de sistemas de información compartidos y de herramientas de valoración consensuados son algunos de los campos en los que se están obteniendo avances estos últimos años, por lo que es prioritario insistir en esta coordinación con una perspectiva más poblacional e integradora.

En definitiva, la consolidación y reforzamiento del modelo de organización sanitaria integrada sigue siendo uno de los mejores instrumentos para desarrollar la multiplicidad de acciones necesarias para dar una orientación poblacional y un enfoque responsable y personalizado a aspectos fundamentales de la salud de la población que nuestras organizaciones sanitarias integradas tienen asignadas desde el fomento de la salud a la prevención de enfermedades, desde la respuesta a situaciones agudas en los códigos de ictus o infarto al enfoque global del cáncer en el Plan oncológico de Euskadi, o desde los soportes a las dependencias hasta el acompañamiento al final de la vida.

1.2. Fondo Social.

El Fondo social se distribuye de la forma siguiente:

PARTAIDETZA PARTICIPACIÓN	%
EAEko Administrazioa Administración de la CAPV	100
GUZTIRA TOTAL	100

1.3. 2023ko ekitaldirako helburuak.

Gure osasun-sistemak pertsonen osasuna, ongizatea eta bizi-kalitatea giza eskubidetzat hartzen ditu, eta, beraz, botere publikoek eta sektore-politikek partekatzen duten helburutzat, ez soilik Osakidetzaren, Osasun Sailaren edo osasun-erakundeen helburutzat, alegia.

Bi dira esparru estrategiko honen funtsezko printzipioak:

- Osasuna politika guztietan.
- Desberdintasunik gabeko osasuna, gertuagokoa eta pertsonen zerbitzura dagoena.

2023ko ekitaldirako helburuak zehaztean, osasunak politika guztietan txertatzeko konpromisoa bete da, eta hori erakundeen arteko erantzunkidetasunean, inplikazioan, konpromiso komunean eta lankidetzan gauzatzen da, pertsonen ongizatea hobetzeko eta osasun-ekitatea bermatzeko.

Helburu horiek Osasun Sailaren XII. legegintzaldirako Ildo Orokorretan garatutako eskemaren barruan daude:

Lehenengo helburua da kalitatezko sistema publiko, unibertsal, ekitatibo, aurreratu, erabakitzaile eta bikain gisa indartzea, horrela sistema sendotzeko.

Sistemaren irisgarritasuna. Irisgarritasuna da osasun-sistemaren printzipioetako bat, baita haren erronka nagusietako bat ere. Itxaron-zerrendek eta osasun-arreta jasotzeko atzerapenek atzerapenak murriztea eskatzen dute.

Pertsonak ardatz dituen osasun-sistema bat mantentzea, balioan oinarritutako medikuntza ezarriz. Balioan oinarritutako osasun-sistema batean aurrera eginez, asistentzia pertsona ardatz duen arreta integratu batera bideratu ahal dugu. Ebidentzia zientifikotik abiatuta, pazienteari ahalduntzeko aukera emanez, erabakiak hartzen parte har dezan, bere emaitza klinikoetan eta bizi-kalitatean oinarrituta. Plan Onkologikoan zehaztutako gaixotasunetan medikuntza baliotsua ezartzeari lehentasuna emango zaio.

Humanizazioa. Humanizazio-politikak, adibidez, honako lan-ildo hauetan zehazten dira: espazio sanitario atseginagoak, seguruagoak eta erosoagoak diseinatzea; adinekoen hauskortasunari arreta emateko plana; edo paziente pediatrikoei zuzendutako jarduerak.

Pazienteak ahalduntzea. Osasun Eskola programa erabat garatuko da, pazienteei prestakuntza eta laguntza emateko, beren gaixotasunaren jarraipena egin dezaten eta prebentzio erabaki hobeak har ditzaten.

Osasun-karpeta berritzea. Arkitektura informatiko berri bat ezarrita, osasun-karpeta berria zabalduko da. Bertan, teknologiaren bilakaera aprobetxatuz, tresna berriak sartuko dira, hala nola bularreko, koloneko eta zerbixeko minbiziaren baheketa-programen jakinarazpenen kudeaketa, txosten berriak eskuratu eta ikusteko aukera berriak, edo aurretiazko borondateen

1.3. Objetivos del ejercicio 2023.

Nuestro sistema de salud considera la salud, el bienestar y la calidad de vida de las personas como un derecho humano y, por lo tanto, como un objetivo compartido por los distintos poderes públicos y políticas sectoriales, no únicamente para Osakidetza, el Departamento de Salud o las entidades sanitarias.

Dos son los principios nucleares de este marco estratégico:

- la salud en todas las políticas.
- la salud sin desigualdades, más cercana y al servicio de las personas.

La elaboración de los Objetivos para el ejercicio 2023, responde a ese compromiso de La Salud en todas las Políticas y esto se concreta en la corresponsabilidad, la implicación, el compromiso compartido y la colaboración entre las distintas instituciones con el fin último de mejorar el bienestar de las personas y garantizar la equidad en salud.

Dichos objetivos se enmarcan en el esquema desarrollado en las Líneas Generales del Departamento de Salud para la XII Legislatura:

El Primer Objetivo es Reforzar el sistema como público, universal, equitativo, avanzado, resolutivo, de calidad y de excelencia para, así, consolidarlo.

Accesibilidad al sistema. La accesibilidad es uno de los principios rectores del sistema sanitario y también uno de sus principales retos. Las listas de espera y las demoras para recibir atención sanitaria, requieren de un impulso en la reducción de las demoras.

Mantener un sistema de salud centrado en las personas mediante la implantación de la medicina basada en el valor. Avanzar en un sistema de salud basado en el valor nos permite rediseñar la asistencia hacia una atención integrada centrada en la persona. Una atención que, partiendo de la evidencia científica, permite empoderar al paciente, en la toma de decisiones compartida, en base a sus propios resultados clínicos y de calidad de vida. Se priorizará la implantación de la medicina en valor en las enfermedades definidas en el Plan Oncológico.

Humanización. Las políticas de humanización se concretan, por ejemplo, en líneas de trabajo como el diseño de espacios sanitarios más amables, seguros y confortables; plan de atención a la fragilidad de la persona mayor; o actuaciones dirigidas a pacientes pediátricos.

Empoderamiento de pacientes. Se desarrollará completamente el programa Osasun Eskola, para formar y ayudar a las y los pacientes a tomar las mejores decisiones para prevenir y realizar el seguimiento de su propia enfermedad.

Renovación de la carpeta de salud. Con la implantación de una nueva arquitectura informática, se desplegará la nueva Carpeta de Salud en la que, aprovechando la evolución tecnológica, se incorporarán nuevas herramientas como la gestión de las notificaciones de los programas de cribado de cáncer de mama, colon y cérvix, nuevas posibilidades de acceso y visualización

erregistrora sartzeko aukera.

E-OSASUNA. Arretaren eta osasunaren eskuragarritasuna hobetzeko teknologia berriak garatzea errealitate bat da dagoeneko. E-osasunean aurrera egiteko, Osakidetzak ahalegina egingo du arreta pertsonalizatzeko, datuen tratamendu pertsonalizatua eta datuen zientziaren garapena erraztuko duten aplikazio berrien bidez, doitasunezko medikuntza garatu ahal izateko.

Doitasunezko medikuntza pertsonalizatua. Esku-hartze medikoa norbanakoaren ezaugarrietara egokitzeko aukera ematen du, eta, ondorioz, onura jasoko duten paziente-taldeei esku-hartze prebentiboak, diagnostikoak edo terapeutikoak aplikatzeko aukera ere bai.

Pazientearen segurtasuna. 2021-2030 estrategia berriak Osakidetzan azken urteotan eskuratu den ezagutza eta ikaskuntza barneratuko ditu.

Bigarren helburua da zentroak, egiturak eta ekipamenduak eskuratzea, hobetzea, modernizatzea eta egokitzea, gertuko eta kalitatezko arreta eskuragarrian aurrera egiten jarraitzeko.

Hala, legegintzaldi honetan osasun-instalazioak, -teknologia eta -ekipoak hobetzeko eta modernizatzeko plan espezifiko bati ekingo zaio. Planak, besteak beste, honako neurri hauek hartuko ditu: lehen mailako arretako zentroak eta ospitaleak berritzea; x izpien ekipamenduak eta anestesia-ekipoak pixkanaka berritzen joatea; kirurgia-blokeak, endoskopia-gelak, hemodinamika, erradioterapia eta gainerako ekipo medikoak eta ospitaleetako instalazioak modernizatzea eta handitzea. Legegintzaldi honetan, obrak hasita dituzten osasun-zentroak amaitu eta irekitzeaz gain, Arabako Unibertsitate Ospitaleko (Txagorritxu) eraikin nagusi berria martxan jarri da, mugarri nagusi gisa. Proiektu horren bigarren fasea 2023an idatziko da, eta 2023. urtearen amaieran hasiko da gauzatzen. Bestalde, erabakimen handiko zentro bat eraikiko da Tolosan.

2023ko inbertsioei dagokienez nabarmendu beharreko gainerako mugarri nagusien artean:

- Zallako osasun-zentro berriko obrak.

- Aretxabaletako osasun-zentroko obrak.

- Laudioko osasun-zentroko obrak.

- X izpien gelak berritzea.

- Azeleragailuak berritzea, Donostia, Basurtu eta Arabako Unibertsitate Ospitaleetan.

- Erakunde osoko OTA gailuak berritzea.

Emergentzietan, langileak kudeatzeko eredua eta profesionalen arteko barne-komunikazioa eguneratuko dira, eta baliabide materialetan eta haien tresna teknologikoetan inbertitzen jarraituko da.

Osakidetzako Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroak dohaintza kopurua handitzea aurreikusi du, COVID pandemian zehar galdutako edo aldatutako hornidura-bilketak berreskuratuz.

de nuevos informes, o la posibilidad de acceder al registro de voluntades anticipadas.

E-SALUD. El desarrollo de nuevas tecnologías para mejorar el acceso a la atención y la salud es ya una realidad. Para avanzar en la e-salud, Osakidetza va a realizar un esfuerzo para personalizar la atención mediante nuevas aplicaciones que favorezcan el tratamiento personalizado de los datos y el desarrollo de la ciencia de datos que permitan desarrollar la medicina de precisión.

Medicina personalizada de precisión. Es aquella que hace posible adaptar la intervención médica a las características individuales de cada persona y, en consecuencia, aplicar intervenciones preventivas, diagnósticas o terapéuticas en aquellos grupos de pacientes que obtendrán un beneficio de las mismas.

Seguridad del paciente. Una nueva estrategia 2021-2030, incorporará el conocimiento y aprendizaje adquirido en Osakidetza durante estos últimos años.

El Segundo objetivo se centra en adquirir, mejorar, modernizar y adecuar centros, estructuras y equipamientos para seguir avanzando en una atención cercana, de calidad y accesible.

Así, en esta legislatura se abordará un plan específico de mejora y modernización de instalaciones, tecnología y equipos sanitarios. El plan contemplará, entre otras, las siguientes medidas: renovación de centros de Atención Primaria y centros hospitalarios; renovación escalonada de equipamientos de Rayos X y equipos de anestesia; modernización y ampliación de bloques quirúrgicos, salas de endoscopia, hemodinámica, radioterapia y demás equipos médicos e instalaciones de hospitales. A lo largo de esta legislatura, además de la finalización y apertura de los centros de salud cuyas obras están iniciadas, se ha puesto en funcionamiento, como uno de los hitos principales, el nuevo edificio principal del Hospital Universitario Araba (Txagorritxu). La segunda fase de dicho proyecto se estará redactando durante el 2023 para iniciar su ejecución a finales de 2023. Por otra parte, se construirá un centro de alta resolución en Tolosa.

Entre el resto de hitos principales a destacar en lo referente a inversiones de 2023:

- Obras del nuevo centro de salud en Zalla.

- Obras del centro de salud de Aretxabaleta.

- Obras del centro de salud de Laudio.

- Renovación del parque de salas de RX.

- Renovación del parque de aceleradores,Hospital Universitario Donostia, Basurto y Araba.

- Renovación del parque de TAC de toda la organización.

En emergencias se va a actualizar su modelo de gestión de personal, la comunicación interna entre profesionales y se va a continuar invirtiendo en los medios materiales y sus herramientas tecnológicas.

El Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos de Osakidetza tiene previsto incrementar el número de donaciones mediante la recuperación de aquellas colectas de abastecimiento pérdidas o modificadas

durante la pandemia COVID.

OSATEK, Helburua: Euskadin erresonantzia magnetikoa egin behar duten pertsona guztien itxaronaldiak 30 egunera arte murriztea.

OSATEK, Objetivo: reducir los tiempos de espera para todas las personas que necesiten realizarse una resonancia magnética en Euskadi hasta los 30 días.

Hirugarren helburua: bikaintasuna lortzea arreta espezializatuan eta ospitale-arretan, espezializazio, berrikuntza eta emaitza klinikoen maila altuari eusteko, gure inguruneko erreferentziazko zerbitzuekin bat etorriz.

Tercer objetivo, buscar la excelencia en la atención especializada y hospitalaria para mantener un alto nivel de especialización, innovación y resultados clínicos, en línea con los servicios de referencia de nuestro entorno.

Kirurgiako itxarote-zerrendak 65/2006 Dekretuan ezarritako ratioen azpitik berreskuratzeko eta finkatzeko lan egingo da. Gaur egun, ratio horiek estatuko eta Europako mailarik baxuenetan daude. Gainera, erreferentziazko unitateetan espezializazio handiko politikari eutsiko zaio, osasunean emaitza hobeak lortzeko, tratatutako kasuen kopuruaren eta lortutako emaitzen artean harreman frogatua dagoen lekuetan.

Se trabajará para recuperar y consolidar las listas de espera quirúrgica por debajo de las ratios marcados en el Decreto 65/2006, que actualmente se sitúan en los niveles más bajos del estado y entre los más bajos de Europa. Además, se mantendrá una política de alta especialización en Unidades de Referencia para conseguir mejores resultados en salud, allí donde existe una relación demostrada entre el número de casos tratados y los resultados obtenidos.

Laugarren helburua: farmazia-kudeaketa berritzailea, jasangarria eta osasun-beharretara egokitua egitea; medikamentuen arloan, efizientzian, kalitatean, irisgarritasunean eta erabilera egokian aurrera egiten jarraitzea.

Cuarto objetivo, realizar una gestión farmacéutica innovadora, sostenible y adaptada a las necesidades en salud; continuar avanzando en materia de medicamentos, en eficiencia, calidad, accesibilidad y uso adecuado.

Kudeaketa egokian sakondu nahi dugu, preskripzio eraginkor eta kalitatezkoaren etengabeko hobekuntzan berrituz. Horretarako, farmazia-produktuen legeriaren arloko funtzio berriak behar dira, eskumen hori berriki transferitu baita Euskadira. Aldi berean, kalitatezko farmazia-arreta emango zaie egoiliarrei, eta gure osasun-sistemari Farmazia Soziosanitarioko Unitate bat emango zaio, egoitzei medikamentuak modu zentralizatuan emateko, dosi pertsonalizatuen sistema baten bidez.

Queremos profundizar en una gestión adecuada, innovando en la mejora continua de una prescripción eficiente y de calidad. Para ello se precisan nuevas funciones en materia de legislación de productos farmacéuticos, ya que esta competencia ha sido recientemente transferida a Euskadi. En paralelo, se prestará una atención farmacéutica de calidad a las personas residentes y se dotará a nuestro sistema de salud de una Unidad de Farmacia Sociosanitaria para el suministro centralizado de los medicamentos a las residencias mediante un sistema de dosis personalizadas.

Bosgarren helburua: langileen gaikuntza eta gogobetetasun handiagoa lortzea, haien lanean, konpromisoan eta lankidetzan oinarrituta eraiki baita Euskadiko osasun-sistema.

El quinto objetivo, lograr la mayor capacitación y satisfacción del personal sobre cuyo trabajo, compromiso y cooperación se ha construido el sistema de salud de Euskadi.

Euskal osasun-sistemaren ezaugarrietako bat beti izan da sektore publikoaren eta pribatuaren arteko oreka, eta horrek aukera eman du euskal gizartearen osasun-eskaerei erantzun egokia emateko. Osasun Sailak itunak mantenduko ditu euskal osasun-sistemari ongizatea eta espezializazio handiagoa ematen dioten eta gizartean enpresa-sarea osatzen duten erakunde edo entitateekin.

El sistema vasco de salud siempre se ha caracterizado por mantener un equilibrio entre el sector público y el sector privado, lo que ha permitido dar una respuesta adecuada a las demandas sanitarias de la sociedad vasca. Desde el Departamento de Salud se mantendrán los conciertos con aquellas organizaciones o entidades que aportan bienestar y una mayor especialización al sistema vasco de salud y que, a su vez, generan tejido empresarial en la sociedad.

Seigarren helburua: Osakidetzan lan egiten duten pertsonen gogobetetasun handiagoa.

Sexto objetivo, desarrollar la satisfacción de las personas que trabajan en Osakidetza.

Enplegua eta lan-baldintzak egonkortu eta kontsolidatzea.

Estabilización y consolidación del empleo y condiciones laborales.

Plantilla berritu eta handitu egingo da, eta, horrela, Osakidetzak lan-egonkortasuna lortuko du. 2020-2024 legealdian, 9.033 lanposturen deialdia egingo da; beraz, martxan jarriko dira 2018ko eta 2019ko enplegu publikoko eskaintzaren hautaketa-prozesua, 3.035 lanposturekin, eta 2020-2021 EPE-Egonkortze prozesua, 5.998 lanposturekin.

Se renovará y aumentará la plantilla, aportando así estabilidad laboral a Osakidetza mediante la convocatoria de 9033 plazas en el periodo 2020-2024, así se pondrá en marcha el proceso de selección de la oferta pública de empleo de 2018 y 2019 que incluye 3035 plazas y OPE 2020-2021 – Estabilización. que incluye 5998 plazas.

Txanda irekiko estatutupeko langile finko izateko, hurrengo 2020-2021 EPE-Egonkortze prozesuan 5.998

Para el acceso a la condición de personal estatutario fijo por el turno libre se ofertan en la próxima Oferta de

lanpostu eskainiko dira. Horietatik, lehiaketa-oposizio sistemaren bidez, 4.441 plaza eskainiko dira (1.002, 2020ko ekitaldiko Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagozkionak; 1.273, 2021eko ekitaldiko Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagozkionak; eta 2.166, Egonkortzeko EPEari dagozkionak). Lehiaketa-sistemaren bidez, 1.557 plaza eskainiko dira, salbuespen gisa eta behin bakarrik, Egonkortzeko EPEari dagozkionak.

Empleo 2020-2021-Estabilizacion 5.998 plazas, de las cuales por el sistema de Concurso-Oposición se ofertan 4.441, (1.002 que corresponden a la Oferta Pública de Empleo del ejercicio 2020, 1.273 que corresponden a la Oferta Pública de Empleo del ejercicio 2021, y 2.166 que corresponden a la OPE de Estabilización) y por el sistema de Concurso se ofertan 1.557 plazas, de forma excepcional y por una sola vez, correspondientes a la OPE de Estabilización.

Osakidetzaren egiturazko plantilla handituko da, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2022ko irailaren 8an, plantilla handitzeko 2.467 lanpostuko espediente bat onartu baitzuen. Espediente hori Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaio, Osakidetzako plantillako lanbide-talde bakoitzeko gehieneko langile kopurua onartzeko.

Se incrementará la plantilla estructural de Osakidetza, tras la aprobación por el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, de 8 de septiembre de 2022, de un expediente de ampliación de plantilla de 2.467 plazas, que se tramitará a Consejo de Gobierno para la aprobación del n. máximo de efectivos por grupo profesional de la plantilla de Osakidetza.

Plantilla handitzeko espediente horrek, alde batetik, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen aplikazioari erantzuten dio, zeinak aldi baterako enplegua egonkortzeko plan bat ezartzen baitu, eta, bestetik, Lehen Mailako Arreta indartzeko eta hobetzeko hartutako konpromisoari. Horrela, Osakidetzako egiturazko plantilla handitzen da, langile horiei egonkortasun handiagoa emanez eta erakunde publikoko enpleguaren kalitatea hobetuz.

Este expediente de ampliación de plantilla responde, por un lado, a la aplicación de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público, que establece un plan de estabilización de empleo temporal y, por otro, al compromiso adquirido para refuerzo y mejora de la Atención Primaria. Se amplía así la plantilla estructural de Osakidetza, dotando de una mayor estabilidad a la misma y mejorando la calidad del empleo en el ente público.

Osakidetzak enpleguaren egonkortasunarekin duen konpromisoari jarraipena emateko, Osakidetzaren honako lan-eskaintza publiko hauek onartu dira:

Con el fin de dar continuidad al compromiso de Osakidetza con la estabilidad en el empleo, se han aprobado las siguientes ofertas públicas de empleo de Osakidetza:

- Erabakia, 2018ko abenduaren 17koa eta 2019ko abenduaren 26koa, Osakidetzako Administrazio Kontseiluarena, 2018ko eta 2019ko ekitaldietarako Osakidetzaren lan-eskaintza publikoak onartzen dituena. Guztira, 3.233 lanpostu eskaini dira txanda irekian eta 302 barne-sustapeneko txandan.

- Acuerdo de 17 de diciembre de 2018 y 26 de diciembre de 2019 del Consejo de Administración de Osakidetza, se aprueban las ofertas de empleo público de Osakidetza para los ejercicios 2018 y 2019, respectivamente, con un total de 3.233 plazas convocadas en turno libre, y 302 en turno de promoción interna.

- Erabakia, 2020ko abenduaren 18koa, Osakidetzako Administrazio Kontseiluarena, Osakidetzaren 2020ko ekitaldirako lan-eskaintza publikoa onartzen duena; guztira, 1.002 lanpostu eskaini dira txanda irekian.

- Acuerdo de 18 de diciembre de 2020 del Consejo de Administración de Osakidetza, se aprueba la oferta de empleo público de Osakidetza para el ejercicio 2020, con un total de 1.002 plazas convocadas en turno libre.

- Erabakia, 2021eko abenduaren 13koa, Osakidetzako Administrazio Kontseiluarena, Osakidetzaren 2021eko ekitaldirako lan-eskaintza publikoa onartzen duena. Guztira, 1.273 lanpostu eskaini dira txanda irekian.

- Acuerdo de 13 de diciembre de 2021 del Consejo de Administración de Osakidetza, se aprueba la oferta de empleo público de Osakidetza para el ejercicio 2021, con un total de 1.273 plazas convocadas en turno libre.

- Erabakia, 2022ko maiatzaren 17koa, Osakidetzako Administrazio Kontseiluarena, 2022. urtean Osakidetzaren aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak antolatzen dituen lan-eskaintza publikoa onartzen duena. Eskaintza horrek 3.723 lanpostu biltzen ditu gehienez, txanda irekian eskaintzeko; beste 2.166 lehiaketa-oposizio sistemaren bidez eskaintzen dira, eta 1.557, salbuespen gisa eta behin bakarrik, lehiaketa-sistemaren bidez.

- Acuerdo de 17 de mayo de 2022 del Consejo de Administración de Osakidetza, se aprueba la oferta de empleo público que articula los procesos de estabilización de empleo temporal de Osakidetza en el año 2022. Esta oferta integra un número máximo total de 3.723 plazas, para su convocatoria en turno libre, convocándose 2.166 por el sistema de concurso-oposición y 1.557, de manera excepcional y por una sola vez, por el sistema de concurso.

Bestalde, 2022an onartuko da ere Osakidetzaren 2022ko enplegu publikoaren eskaintza, langileen berritze-tasari dagokiona, eta aurreikusten da 1.637 lanpostu izango dituela.

Por otra parte, se aprobará así mismo en el año 2022 la oferta de empleo público de Osakidetza para el año 2022, correspondiente a la tasa de reposición de efectivos, con una previsión de convocatoria de 1.637 plazas.

Lanpostu funtzionalei buruzko Dekretuaren berrikuspena Osakidetzako Mahai Sektorialaren

La revisión del Decreto de puestos funcionales será incluida en la plataforma negociadora de la Mesa

negoziazio-plataforman sartuko da, eta Osakidetzak hasiko ditu proiektu horri ekiteko lanak, lanpostuen berrikuspena amaitzeko eta 2023an Dekretuaren izapidetzea hasteko.

Eusko Legebiltzarrean onartuko diren hautaketako eta lanbide-sustapeneko eredu berriak landuko dira.

Profesionalekin batera, lan-baldintzen akordioa negoziatzeko prozesuarekin jarraituko da, hura berrikusi eta eguneratzeko, egungo arau-esparrura egokitu dadin. Familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko neurriak hobetzeko lan egingo da, ordutegi-malgutasuneko eta telelaneko neurriekin, bai eta osasun-langileen kontziliazio erantzunkiderako programak garatzeko ere. Mugikortasun ireki eta iraunkorreko sistema ezartzen jarraituko da, kontsolidazioa lortzeko.

Prestakuntza eta trebakuntza. Profesionalen prestakuntza, trebakuntza eta sentsibilizazioa bultzatzen jarraituko da, osasun-sistemaren etengabeko eguneratzearen eragile aktibo gisa, profesionalen kategoria profesionala, asistentzia-maila edo zerbitzu-erakundea edozein dela ere. Bestalde, egungo une historikoaren ildotik, mediku eta erizainentzako berariazko prestakuntza-programak egingo dira, batez ere gaixotasun berrien detekzio, jarraipen eta tratamenduari buruzkoak. Era berean, prestakuntza-programa espezifikoak bultzatuko ditugu taldeburuentzat, aldaketa eta ziurgabetasuneko une hauetan sortzen diren erronkei erantzuteko.

Genero-ikuspegitik lan egitea. "Osakidetzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana 2021-2024" onartu ondoren, bertan jasotako ekintzak programatzen eta ezartzen jarraituko da, euskal osasun-sisteman gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko. Besteak beste, neurriak hartuko dira soldata-arrakala murrizteko, zuzendaritza- eta erabakimen-lanpostuetako emakume kopurua handitzeko, horrela buruzagitzetako emakumeen ehunekoa emakumeen guztizko ehunekoarekin parekatzeko, etab.

Lanbide-garapena Lanbide-garapeneko eredu berri bat definitzen ari gara, pertsonen kudeaketa integratuaren barruan sistema bat izatea ahalbidetuko diguna, osasunaren eremuko talentua erakarri eta atxikitzeko.

Euskararen erabileraren normalizazioa. 2022an Euskararen Erabilera Normalizatzeko III. Plana onartzeak bultzada berri bat ematen dio 2005az geroztik Osakidetzan garatzen ari den prozesu planifikatu eta antolatuari, Osakidetzako zerbitzu eta arlo profesional gero eta gehiagotan euskararen presentzia eta erabilera areagotu eta normalizatze aldera.

LEHEN MAILAKO ARRETAN:

Lehen helburua da Lehen Mailako Arreta bultzatzen eta sendotzen jarraitzea, herritarrengandik gertuen dagoen maila asistentziala baita. Xedea da Lehen Mailako Arreta jende gehiagorengana heltzen dela bermatzea eta osasuneko ekitate- eta berdintasun-eza desagerraraztea.

Sectorial de Osakidetza., iniciándose por Osakidetza los trabajos para el abordaje de dicho proyecto, con el objetivo de concluir la revisión de los puestos e iniciar la tramitación del Decreto en el año 2023.

Se trabajará en nuevos modelos de selección y promoción profesional que sean aprobados en el Parlamento Vasco.

Junto a los y las profesionales, se continuará con el proceso de negociación del acuerdo de condiciones laborales su revisión y actualización con el objetivo de conseguir su adecuación al actual marco normativo. Se trabajará en la mejora de las medidas de conciliación familiar y personal, con medidas de flexibilidad horaria y teletrabajo y en el desarrollo de programas de conciliación corresponsable del personal sanitario. Se continuará con la implantación del sistema de movilidad abierto y permanente, con el objetivo de conseguir su consolidación.

Formación y capacitación. Se mantendrá el impulso a la formación, capacitación y sensibilización de las y los profesionales como agentes activos de la actualización permanente del sistema de salud, independientemente de cuál sea su categoría profesional, nivel asistencial u organización de servicio. Y derivado del momento histórico actual, se van a impulsar programas de formación específicos entre el personal facultativo y de enfermería, en especial en la detección, seguimiento y tratamiento de enfermedades emergentes. También impulsaremos programas de formación específicos para líderes de equipos que nos permitan dar respuesta a los retos que se presentan en estos momentos de cambio e incertidumbre.

Trabajar con perspectiva de género. Con la aprobación del “I Plan para la igualdad de mujeres y hombres 2021-2024 de Osakidetza” con el objetivo de garantizar la equidad entre hombres y mujeres en el sistema vasco de salud, se continuará con la programación e implantación de las acciones contenidas en el mismo. Entre otras, acciones que permitan reducir la brecha salarial, aumentar el número de mujeres en puestos de dirección y decisión, equiparando el porcentaje de jefaturas al porcentaje total de mujeres, etc.

Desarrollo profesional. Estamos trabajando en la definición de un nuevo modelo de desarrollo profesional que nos permita disponer de un sistema dentro de la gestión integrada de las personas que permita atraer y retener el talento del ámbito sanitario.

Normalización del uso del euskera. La aprobación del 3er Plan de Normalización del Uso del Euskera en el año 2022, da un nuevo impulso al proceso planificado y organizado que, desde 2005, viene desarrollándose en Osakidetza, con el fin de aumentar y normalizar la presencia y el uso del euskera en un número cada vez mayor de servicios y áreas profesionales de Osakidetza.

EN EL ÁMBITO DE ATENCIÓN PRIMARIA:

El primer objetivo es continuar con el impulso y refuerzo de la Atención Primaria como nivel asistencial de mayor proximidad a la ciudadanía, para garantizar una mayor accesibilidad y evitar inequidades y desigualdades en salud.

Osakidetzako Lehen Mailako Arreta sendotu eta identifikatzeko bidean aurrera egiteko, integrazio asistentziala areagotuko duen abiadura-palanka gisa, 2021ean Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza eratu zen Osakidetzako Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzan. Zuzendariordetzak lanean jarraitzen du Euskadiko Lehen Mailako Arretarako Estrategiak ezarritako ildo eta helburuetan.

Para avanzar en el reforzamiento e identidad de la Atención Primaria de Osakidetza como palanca de cambio para una mayor integración asistencial, en 2021 se constituye la Subdirección para la Coordinación de la Atención Primaria en la Dirección de Asistencia Sanitaria de Osakidetza. Desde la subdirección se continua trabajando en las diferentes líneas y objetivos establecidos por la Estrategia para la Atención Primaria de Euskadi.

Erantzun onena eman dezakeen profesionalak biztanleriaren osasun-premiei erantzun diezaien, sare osoan eskariaren kudeaketa-eredua homogeneizatu eta bultzatzen dihardugu. Horretarako lagungarri dira, besteak beste, prozesu arinen katalogoa, kalitate-agenden diseinua, administrazio-eremuetako agenden garapena, kontsulten desburokratizazioa eta aldi baterako ezintasunen automatizazioa.

Con el objetivo de dar respuesta a las necesidades de salud de la población por parte de la persona profesional que mejor respuesta puede dar, se trabaja en homogeneizar e impulsar el modelo de gestión de la demanda en toda la red. A ello contribuyen un catálogo de procesos leves, el diseño de agendas de calidad, el desarrollo de agendas para las áreas administrativas, la desburocratización de las consultas y la automatización de las IT, entre otras acciones.

Gainera, Osakidetzaren zerbitzu-zorroa handitu eta homogeneizatzeko helburuarekin jarraituz, 2019tik fisioterapia sartu da Lehen Mailako Arretan, eta gimnasioak handitzen jarraituko da erakunde guztietan 2023an zehar.

Además, siguiendo con el objetivo de ampliar y homogeneizar la cartera de servicios, desde 2019 se incorporó la fisioterapia en Atención Primaria en la cartera de servicios de Osakidetza, que continuará con la ampliación de gimnasios en todas las organizaciones a lo largo del 2023.

Lehen Mailako Arreta indartzeko lanean jarraituko da, eta egiturazko plantilla handituko. Esaterako, lanpostu berriak ezarriko dira LMAko plantillan, ez bakarrik kategoria nagusietan, hala nola medikuntzan eta erizaintzan, baita farmazian, administrazio-eremuan eta fisioterapian ere. Izan ere, bultzada horren helburua da herritarrei arreta hobea ematea eta haien osasun-egoeraren jarraipena egitea.

Se continuará trabajando en el fortalecimiento de la Atención Primaria incrementando su plantilla estructural, con la implantación de nuevas plazas en la plantilla de AP, no solo en las categorías mayoritarias de medicina y enfermería, sino también en farmacia, área administrativa y fisioterapia, orientando este impulso a la mejor atención de la población y el seguimiento de su estado de salud.

Administrazio-eremuak indartzeko, lanpostuak sortzeaz gain, bertako langileen gaitasun berriak garatzeko lanean jarraituko da, baita langile berrientzako prestakuntza-plan korporatibo bat diseinatzeko ere.

Con el fin de reforzar las áreas administrativas, además de la creación de plazas, se continuará trabajando en el desarrollo de nuevas competencias del perfil, así como en el diseño de un plan formativo corporativo para las personas de nueva incorporación.

Erizainei dagokienez, indikazioa hedatzeko eta Erizaintzako koordinazioaren figura LMAU desberdinetan ezartzeko lanean jarraitu da.

En cuanto a profesionales de enfermería, se continuará trabajando en el despliegue de la indicación y en implantar la figura de la coordinación de enfermería en las diferentes UAP.

Lehen Mailako Arretako fakultatibo eta erizainen figura indartzen jarraitzeko, Pediatriako BAME-en eta Familiako eta Komunitateko Medikuntzako BAME eta BAEE-en prestakuntza lehenesten jarraituko da, prestakuntzaren alorrean maila gorena lortzeko.

Para continuar reforzando al personal facultativo y de enfermería de Atención Primaria, se continuará priorizando la formación MIR en Pediatría y MIR y EIR en Medicina de Familia-Comunitaria, alcanzando la máxima capacidad formativa.

Bigarren helburua da komunitateko arreta bikaina, koordinatua eta homogeneoa lortzea lurralde osoan, erreferentziazko eredu gisa, zeinetan herritarrek, erakundeek eta profesionalek konfiantza izango duten, ahalik eta gogobetetze-maila handienarekin. Horretarako, Euskadin komunitateko arretaren estrategia berria lantzen eta garatzen hasi da, estrategiaren garrantzia eta balioa sustatuz, dagoeneko abian dauden ekimenak bultzatuz, eta osasunari ikuspegi komunitario batetik heltzeko ekintza berriak sortuz, Osasun Saileko Osasun Publikoarekin batera.

El segundo objetivo es alcanzar una atención comunitaria excelente, coordinada y homogénea en todo el territorio, que sea un modelo de referencia en el que la ciudadanía, instituciones y profesionales confíen y con el mayor grado de satisfacción posible. Para ello, se ha comenzado a trabajar y desarrollar la nueva estrategia de atención comunitaria en Euskadi, fomentando la importancia y valor de la misma e impulsando las iniciativas que ya están en marcha, así como la creación de nuevas acciones en favor del abordaje de la salud desde una perspectiva comunitaria, junto a Salud Publica del Departamento de Salud.

Hirugarren helburua da Osakidetza erreferentziazko eragile izatea gure erkidegoko pertsonen ahalduntzean. Horretarako, informazio eta prestakuntza egokia,

El tercer objetivo, se pretende que Osakidetza sea agente de referencia en el empoderamiento de las personas de nuestra comunidad, facilitando información

eguneratua eta baliozkotua emango da, ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eskuratzeko, autozainketan eta osasunaren zainketan erantzukidetasuna sustatzea xede. Era berean, lan aktiboa egiten ari da Osasun Eskolan eta Paziente Bizia – Paziente Aktiboa programan.

